

ARTAMIN'GO LAMIÑAK

Beñola «Artamin-errota»ko etxagunak, egunez basoan ira ebaten ekinda gero, illuntzean etxeratu zanean, bere emaztea sukaldean negarrez aurkitu eban. Gizona, emaztea negarrez ikustean ikeratu zan eta atsekabiaren zijoja jakin gurean itandu eutson:

—Zer jasoten da? Zergaitik negarrok?

Eta senarraren itaunari emaztiak ezeutson ezer erantzun, negar eta negar egiñaz, bere arlo-ixilian aurrera jarraitu baño... Orduan gizonak asarrez:

—Naiz bata dala naiz bestia dala... zer jasoten jatzun aguro esan biar daustazu...

—Orra ba, zuretzako aparitako euki dodan esnia —erantzun eutson emaztiak— neska batek, laratzutik galdarilla artuta, dangada baten edan dau.

—Josus! ori baño ezpada!.. Ta gauza orreri orrenbeste ulu ta negar...

—Bai baño, biar be etorriko dala esan dausta; ta esnia laratzuan gertu eukiten ezpadautzat, beragaz eroango nabela esan dausta.

—Arrayua! Nora, gero, eroan? Geu ezkagoz ba ementxe?... Ta neska ori zein jasekoa izan da?

—Larrosea lakoxe arpegiagaz eder-ederra izan da... Ta nor dan itandu dautzadania, erreka ertzeko lora abeslaria dala esan dausta. Ai, aren abotsaren ezta... Abestuten bere ekin dau ta...

—Olan bada, lamiña denganiñuen bat dala esango neuke. Egunoro esnia edatera etorriko dala esan badautzu, ezpai barik lamifiaren bat izan da. Lamiñak ba, gizonak ardautara lez, esnera itsuak izaten dira ta... Biar barriz, neure begiakaz ikusi gura dodalako, basotik goizago etxeratuko naz, ta beragaz barriketaldi bat egiñaz, zer dan edo zer eztan laster igarriko dautzagu.

Esan ta egin, biaramon illuntzian, Artamingo etxaguna goizago etxeratu zan, eta bere emaztiagaz batera, neskatil ezezaguna sutondoan barriketa ugarian egoala ikusi eban. Neskatillia baño, gizona ikusita ikeraturik ixildu egin zan. Eta gizonak itz eta itz egiten eutson arren, ez eutson ezer erantzuten.

Orduan gizonak esnia egosten imiñi egiala agindu eutson. Eta emaztiak beriala galdarilla aundi bat laratzuan imiñi eban. Eta esniak gorantza egin ebanian, neskiak pozarren zoratuta lez diadar aundi bat egiñaz esan eban:

—Txurie gora, txurie gora!

Etxeko andriak ori entzunik, neskiari gure aña esne emon

eutson, eta neskia gure aña esne edan ostian, ixilunia ausita, barriketari eta abestuten asi zan.

Artamingo etxagunak, neskiak esneko moskorra aldian ebala igarri ebanian, bere artian «zertzeladak ontxe atarako dunaz» esanda, izketan ekin eban. Eta iñun diran barriketak egin ostian itandu eutson:

—Nor zara?

—Emetik urrean dagoan artzulo eder bateko lamiña naz; ta gure egurastokirik kutunena, or goiko erreka ertzian daukagu —erantzun eutson neskiak.



—Zenbat zarie? —begi ziarka gizonak itandu eutson.

—Mille ta bat.

—Eta zer egiten dozue?

—Egunez mendian lorak batu. Ta gabaz, osterá, zeruko izarrak zenbatu ta aiziaren soñuan dantzatu.

—Sekulako bizitzia daukazue, arranotan! Noiztik zagoze bertan?

—Eguzkia agertu ta lastertxura etorri giñan bertara, ta illargiak eta izarrak goia apaintzen daben artian emen izango gara.

Azkenengo itzok entzutian, gizona ikeratu zan, eta bere kolko-rako esaten eban: Eurok inguruan doguzala beti bizi biar bagara, onak gagoz! Gure asaba zintzuak bere, eurok zirala bide, iñun diran atsekabiak jasaten ebezan... eta guk bere bardin. Eta lamiña orren biziak, ludia ludi dan arte badirau, gure ondorengo guztiak bere, iñun diranak jasan biarko dabez. Au zoritxarra; —Ta apur bat oldoztu ostian, itandu eutson:

—Zuen bizia amaitu leikenik, badago ala eztago?

—Bai, badago. Bafiña iñortxok bere eztaki... Geuk bakarrik dakigu.

—Esan egidazu ba zer dan. Nigandik kalterik eztozue izangō ta. Ganera barriz, esnia egunoro emongo dautsugu.

Esniaren abintziaz lamiñia pozez zoratu egin zan. Eta buruan eban ule-adats edo ule-kopeta eder gorritzkiari eskuakaz oratuta esan eban:

—Ona emen gure bizia ta iraunkortasuna.

—Eta ule adats miragarriok zelan ebagi leikez ba? —gizonak itandu eutson.

—Ona ba— erantzun eutson lamiñiak— gure ule eder gorritzkia ebagiteko, San Juan bespera gabian jaioriko txekor nabar biren inderragaz, illargi beteko gaba baten, ogei ortzeko burdiñariagaz, ori goiko errekia gau osuan arakatu biar da; ta gero, errekia ondo arakatu ondoren, egun sentiak basterrak argiztu baño len, txekor nabar biak, mendi gallurreko aizetan azke itxi biar dira. Gure amaya orretan dago ba...

Gañeko egun baten, Artamingo errotako gizonak, ibili ta ibili eginda gero, San Juan bespera gabian jaioriko txekor nabar bi aurkitu ebazan, eta lamiñiak esan eutson lez, goiko errekia, illargi beteko gaba baten, burdiñariagaz batera ta bestera ibilita, zietz eta ondo arakatu eban. Eta alan biarrik, egun sentia baño len, ikusgarrizko ule kopeta pilloak atara ebazan. Eta Artamingo lamiña guztien azkena gau artan izan zalako, errotako sendia aurrerantzean bakez ta ederto bizi izan zan.

Mañariko



IZKIRIMIRIAK

- Ai beza, aitona: Bai al daki gaur eskolan maxuak zer galdetu didan?
- Zer galdetu dik, bada, Josetxo?
- Ia eguzkiak ala illargiak palta geyago egiten duan munduan.
- Eta ik zer erantzun diok, ba?
- Illargiak palta geyago egiten digula eguzkiak baño, egunez ezpaitegu bear argirik, gaubez baizik.
- Ederki erantzuna, alajañia! Mutil azkarra aiz i benetan, Josetxo!